BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3477

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bitartez, gazte langabeek hizkuntza-gaitasunak lortzera bideratutako laguntzen deialdia –2012ko uztailaren 6ko bileran Lanbideren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabaki bidez onartua– argitaratu da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2012ko uztailaren 6ko bileran hartutako Erabaki bidez, onartu du gazte langabeek hizkuntza-gaitasunak lortzera bideratutako laguntzen deialdia, eta maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluaren p) atalean ezarritakoaren arabera, erakunde autonomo honetako zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Adierazitako guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2012ko uztailaren 6ko bileran hartutako Erabaki bidez onartutako eta Ebazpen honetan eranskin gisa jasotako deialdia –gazte langabeek hizkuntza-gaitasunak lortzera bideratutako laguntzei buruzkoa– argitaratzea.

Bigarrena.– Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakiak ondorioak izango dituela Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.– Jakinarazi behar dugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakiaren aurka (horren bitartez deialdia onartu da) berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango dela organo horretan bertan ebazpen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, edo zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 24a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JAVIER RAMOS SALAZAR.

ERANSKINA

GAZTE LANGABEEK HIZKUNTZA GAITASUNAK LORTZERA BIDERATUTAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Europako Parlamentuaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Batzordearen Txostenean –gazteak lan-merkatuan sartzeko aukera sustatzeari buruzkoan– zehazten denaren arabera, krisialdi ekonomikoaren egungo egoeran, gazteen langabezia-tasak nabarmen igo dira eta hazteko aukerak oztopatzeaz gain, gizarte-bazterketaren arriskua areagotu egin da. Tamalez, aurreikuspenek aurreratzen digute gazteen langabezia-tasek gora egiten jarraituko dutela. Orain arte adierazitakoaren arabera, esan dezakegu Europar Batasunarentzako arazo larrienetako baten aurrean gaudela. Gazteen belaunaldi oso batek gizarte-bazterketa ez pairatzea dago jokoan.

Era berean, aipatutako txostenetik ondorioztatzen denaren arabera, aurreikuspenek adierazten dute datorren hamarkadan 80 milioi lan sortuko direla Europar Batasunean, eta lan gehienetarako lanesku oso kualifikatua beharko dela. Halaber, egiaztatzen da gazteen prestakuntza-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoak direla enplegu-tasak.

Gizarte baten hazkunde ekonomikoa oso lotuta dago lana uztea saihesten duen eta gizarte-egonkortasuneko neurri gisa gizartea osatzen dutenen diru-sarreren bilakaera orekatua berarekin lotuta daraman kalitatezko enplegua sortzearekin. Egoera horretan, enplegu-politikek zeregin garrantzitsua dute une bakoitzean estrategia egokienak diseinatu eta egiterakoan, langabeen kualifikazioa hobetzeko enpresen produkzio-eskakizunen arabera. Horrekin bat etorriz, Enpleguaren Euskal Estrategiak jarduteko erreferentea izan behar du gizartearentzat eta bereziki herrialdeko gizarte- eta produkzio-arloko aktoreentzat, eta horren ondorioz, 19 Norabide Estrategiko sortu dira, Eusko Jaurlaritzaren lidertza politikoarekin eta Euskadiko lan-merkatuaren funtzionamendua hobetzeko borondatearekin bat datozenak, erantzun eraginkorrak emateko produkzio-sistemari nahiz langile guztiei, eta bereziki kalteberatasun handieneko egoeran daudenei, eta egoera horien artean langabezian egotea dago.

Gure enpresa-sarea oso zabalduta dago kanpoaldean, eta, horren froga da esportazioak BPGaren % 26 direla, punta-puntako hainbat sektore izanik. Sektore horiek beste sektore batzuen traktore gisa jarduten dute eta langile kalifikatuak behar dituzte teknikoki nahiz profesionalki, eta horrek, askotan, hizkuntzak jakitea eskatzen du, batez ere Europako Erkidegoko hizkuntzak.

Garatu behar diren 19 Norabideek biltzen dituzten sei jardun-ardatz estrategiko definitzen dira Enpleguaren Euskal Estrategian. Norabide horietako lehenak «Ekonomia irekia sustatzea, enpresen nazioartekotzea bultzatuz» eskatzen du hizkuntzak, eta bereziki, erkidegoko hizkuntzak dakizkien lanindarra edukitzea, Europarantz bideratzen baitira batez ere gure esportazioak. 5. norabideak «Lan-merkatuaren premiei erantzuten dien biztanleria aktibo kalifikatua lortzea» ere nabarmentzen du jakintza teknikoak dituzten eta hizkuntzak dakizkiten pertsonak izateko premia dagoela; horri esker, pertsona horiek nazioarteko enpresetan garatu ahal izango baitute beren lana.

Era berean, abenduaren 16ko 56/2003 Legearen 25. artikuluan Enplegu Politika Aktiboen hamar jardun-eremuak ezartzen diren, eta eremu horiek Autonomia Erkidegoek eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak dagozkien eskumenak betez garatuko dituzten ekintza eta neurri guztiak biltzen dira, haien diseinuari eta kudeaketari dagokionez erabateko erantzukizuna beren gain hartuz. Esparru hori zabala izatearen helburua da Autonomia Erkidegoei ahalbidetzea ekintza eta neurri horien diseinua eta baita haien erantzukizuna egikaritzea ere.

Bestalde, Europako Kontseiluak, Batzordeak proposatuta, 2010eko martxoaren 26an erabaki zuen, enpleguaren eta hazkundearen aldeko estrategia berri bat, Europa 2020, abian jartzea. Estrategia hori politika ekonomikoak hobeto koordinatzean oinarrituta dago, eta koordinazio hori hazkunde iraunkorraren eta lehiakortasunaren Europako potentziala sustatzeko nahitaez jardun behar den eremu nagusietan bilduko da, eta, horregatik, Kontseiluak EBren helburu nagusiak ezarri zituen; helburu horiek estatu kideen eta Europar Batasunaren jarduna bideratu behar duten helburu komunak dira. Hori dela-eta «Europa 2020 Norabide Integratuak» ezarri zituzten. Norabide horiek Europa 2020 Estrategiarako esparrua ezartzen dute, eta Norabide horien barruan, zortzigarrena «Biztanleria aktibo kalifikatua lortzea, lan-merkatuaren premiei erantzungo diena eta ikaskuntza iraunkorra sustatzea»; azken hori zuzenean lotuta dago deialdi honen helburuarekin, hots, langabezian dauden langileak hizkuntzen jakintzan kualifika daitezen ahalbidetzearekin.

2012-2014ko Espainiako Enplegu Estrategia onartzen duen urriaren 31ko 1542/2011 Errege Dekretuaren lehentasunezko helburuetako bat gazteak dira, eta neurri espezifikoen artean gazte horien lanbide-prestakuntza biltzen du. Hortaz, prestakuntzaren eta berriz kualifikatzearen eremuan OO2-2-1 helburu operatiboa biltzen da, eta honako hau dio: «Langabeak enplegu-hazkunde eta -eskari handiena duten sektoreek eskatzen dituzten gaitasunetan kualifika daitezen bermatzea, gaur egun prestatutako langabe guztien kopurua % 15 izatetik % 21 izatera igaroz».

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan iazko abenduan erregistratutako datuak kontuan hartzen baditugu, ikus dezakegu 16 urtetik 34 urtera bitarteko gazte langabe guztietatik % 20,6k lanbide-heziketako ikasketak dituela, eta % 15,7 unibertsitateko tituluduna dela. Lehenengoen artean, laurden batek ondo ezagutzen du hiru hizkuntzetako bat (ingelesa, frantsesa edo alemana) eta unibertsitateko titulazioa dutenen artean, ehuneko hori % 64,6raino igotzen da, nahiz eta egia den ehuneko horietako gehienak ingelesari dagozkionak direla; izan ere, lanbide-prestakuntza titulua dutenen artean, % 2,37k soilik menderatzen du ondo frantsesa eta % 0,3k besterik ez alemana. Unibertsitateko tituludunen kasuan, % 8k menderatzen du ondo frantsesa eta beste % 2,5ek alemana.

Orobat, agerian geratzen da krisialdietan gazteek hezkuntza eta prestakuntza bilatzen dutela, eta egoera horren aurrean, Administrazio Publikoek eskari hori betetzera bideratutako ekimenak garatu behar dituztela eta kolektibo horren enplegagarritasuna hobetzera bideratutako orientazio hori sustatu behar dutela.

Beraz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan deskribatutako ikuspegitik begiratuta, egoki irizten diogu laguntza-programa hori ezartzeari, gazte askok beren hizkuntza-trebetasunak, hizkuntza desberdinetan, hobetzeko egiten duten ahalegin ekonomikoa eta akademikoa, nolabait, konpentsatuko duen programa, gazte horiek kalitatezko enpleguak lortzeko aukerak areagotzeko asmoz.

Neurri horrek, halaber, hizkuntzak ikasteko erabakia oraindik hartu ez dutenak edo hizkuntza-gaitasunak lortzeko hasierako aldietan daudenak bultzatzeko balio dezake. Ildo horretatik, laguntza-programa hau jarraitzeko asmoz sortu da. Hizkuntza-gaitasunak ikasteak eta hobetzeak eskatzen du prestakuntza-prozesu horietan sartzen direnek dedikazio jarraitua izatea hainbat urtetan eta eskuratutako jakintzak praktikan jartzea ahozko eta idatzizko trebetasunak finkatzeko. Horregatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ustez laguntzei buruzko deialdi hau kolektibo honi laguntzeko etorkizunean sor daitezkeen ondorengo neurrietako lehenengoa izango da.

Azken batean, helburua zera da, Europar Batasuneko erakunde-eremuan presentzia handiena duten eta lan-merkatuan ez ezik enpresaren alorrean ere aukera gehiago ematen dituzten hizkuntzetako hizkuntza-gaitasunak eskura daitezen sustatzea eta saritzea. Beste ikuspegi batetik begiratuta, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak egindako azterlanetik («Lehen Unibertsitate Enpleguaren Behatokia» deiturikoa) ateratako ondorioen arabera, hizkuntzak dakizkiten gazteen kolektiboa da enpresak gehiago nazioartekotzearen ondorioz enpresa horietan arlo horretan atzeman diren premiei hobeto erantzun diezaiekeena.

Aipatutako helburuak lortzeko, Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europar Esparru erkideak ematen duen oinarri erkidea erabiltzen da: ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa.

Deialdi honetan zehazten den laguntza jaso ahal izateko egiaztatze-mailak B1, B2 eta C1 dira, beren baliokidetasunen arabera.

Laguntza hauek beste edozeinekin bateragarriak dira, guztien artean krisialdi larri hau gainditzeko ahalmen handiagoa ematearren pertsona horiei.

Horregatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honetako Administrazio Kontseiluak 2012ko uztailaren 6an egindako bileran onartu zuen gazte langabeek hizkuntza-gaitasunak lortzera bideratutako laguntzei buruzko deialdia onartzea, honako baldintza hauek kontuan hartuta:

1. artikulua.- Xedea.

Deialdi honen xedea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2012ko ekitaldian langabeei eman ahal izango dizkien laguntzak arautzea da, betiere langabe horiek egiaztatzen badute hizkuntza-gaitasun jakin batzuk lortu dituztela ingelesean, frantsesean edo alemanean, betiere alor horretako ikasketak egin ondoren.

2. artikulua.- Aurrekontu-zuzkidura.

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.000.000 euro da (milioi bat euro), eta zenbateko hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2012ko ekitaldiko aurrekontutik eratortzen da.

Zenbateko hori igo ahal izango da dagokion aurrekontu-aldaketa onartzen bada, betiere indarreko legeriaren arabera. Lanbideren zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez emango da horren berri.

3. artikulua.- Diruz laguntzeko moduko jarduna.

Deialdi honen babesean, diru-laguntzaren xede izango da 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera langabe gazteek ingelesa, frantsesa edo alemana hizkuntzetan B1, B2 edo C1 mailak edo I. eranskinean bildutako taularen arabera horien baliokideak lortzea, baldin eta langabe horiek hurrengo artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, eta betiere dagokion maila gainditu dutela egiaztatzen duten hizkuntzari buruz gutxienez 100 orduko prestakuntza-ekintzaren bat egin badute aurretik. Prestakuntza hori 2011ko eta/edo 2012ko ekitaldian egin beharko da nahitaez.

4. artikulua.- Diru-laguntzaren onuradunak.

1.- Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradunak izateko, eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) 18 urtetik gorakoa eta 35 urtetik beherakoa izatea laguntza-eskabidea egiten denean.

b) Langabezian egotea eta enplegu-eskatzaile gisa erregistratuta egotea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan dagokion hizkuntzaren maila lortzen denean, baita eskabidea aurkezten den egunean ere.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean eta eskabidea aurkezten den egunean. Deialdia argitaratzen denean eskatzailea ez badago EAEko udalerriren batean erroldatuta, justifikatu beharko du argitalpen hori egin aurreko hiru urteen barruan eman zuela baja erroldan, eta ordura arte segidako hiru urtetan gutxienez erroldatuta egon zela.

2.- Ezin izango dira deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradunak izan zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta pertsona fisikoak, edota horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean daudenak; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako (otsailaren 18ko 4/2005) Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

3.- Bestalde, laguntza hauek onuradunei eman eta ordaindu ahal izateko, itzultzeko edo zigortzeko prozedura guztiak amaitu beharko dira, baldin eta prozedura horiek oraindik ere bideratzen ari badira, behin Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzen esparruan abiatu ondoren.

5. artikulua.- Laguntzaren zenbatekoa.

1.- Hurrengo paragrafoan aurreikusitako gastuen kostua diruz lagunduko da, 500 euro gehienez ere 3. artikuluan zehazten diren hiru hizkuntzetako edozeinetako B1, B2, C1 mailetan edo baliokideetan egiten den egiaztatze bakoitzeko.

2.- Honako gastu hauek justifikatu ahal izango dira:

- Onuradunak egiaztatutako hizkuntzaren prestakuntza-ikastaroetan matrikulatzeak eragindakoak.

- Maila egiaztatzeko prozeduran izena ematearen ondorioz sortutakoak.

- Onuradunek egindako bidaiek eragindakoak, baldin eta ikastaro horiek errolda-udalerria ez den EAEko udalerri batean egiten badira.

Garraio-kontzeptupean egun bakoitzeko diruz lagundu ahal izango den gehieneko zenbatekoa 0,10 euro izango da eskatzailea bizi den eta erroldatuta dagoen herrialdetik prestakuntza-ekintza ematen den zentroraino dagoen distantzia, joan-etorriak kontuan izanda, 200 euro gehienez ere.

Onuradunek prestakuntza-ekintzak EAEtik kanpo egin baldin badituzte, ez dira diruz lagunduko ezein bidaiak eragindako gastuak.

6. artikulua.- Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

1.- Deialdi honetan araututako laguntzak eskuratu nahi dituztenek beren eskabidea aurkeztu beharko dute, II. eranskinean azaltzen den eta http://www.lanbide.net web-orrian eskuragarri dagoen eredu ofizialaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiari zuzenduta, derrigorrezko dokumentazioarekin batera, interesdunak izena emanda daukan Lanbideren Lurralde-bulegoan. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein baliabide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

2.- Eskabideak aurkezteko epea dagokion hizkuntzan maila-egiaztapena lortu den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita hilabetekoa izango da, 2012ko azaroaren 16ra bitarte gehienez ere, betiere aurretik ez badira deialdiari esleitutako kredituak agortu, Erabaki honetako 7.2 artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera.

Egiaztapen hori deialdi hau EHAAn argitaratu aurretik lortu bada, epea bi hilabetekoa izango da deialdi hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

3.- Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Hirugarren interesdunaren datuen altari buruzko fitxa, eskatzaileak eta dagokion bankuak izenpetu eta zigilatuta.

b) NANaren kopia.

c) Ordaindu dela egiaztatzen duten fakturak eta ziurtagiriak, matrikulei eta/edo prestakuntza-ekintzan izandako partaidetzari buruzko kuotei dagozkienak.

d) Maila egiaztatzeko azterketarako bide ematen duen matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen faktura eta ziurtagiria.

e) Prestakuntza gauzatu den zentroaren ziurtagiria, non zehaztuko den, besteak beste, egin duen ikastaroa eta ikastaroaren ordu kopurua, III. eranskinaren arabera.

f) Errolda-ziurtagiria.

g) Ingelesaren, frantsesaren edo alemanaren egiaztatze-mailaren ziurtagiria.

Prestakuntza-ekintza eskatzailearen bizilekua ez den EAEko udalerri batean egin delako bidaia-gastuak justifikatu nahi dituzten pertsonek, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

h) Erantzukizun-aitorpena, prestakuntza-ekintzara joandako egunei buruzkoa, baita prestakuntza-ekintza gauzatu den herriaren eta eskatzailea bizi den udalerriaren arteko distantziari eta bertaratze horren ondorioz garraio-kontzeptupean eragindako gastuei buruzkoa ere, IV. eranskinean bildutako ereduaren arabera.

4.- Eskabideak eskatutako betekizunak betetzen ez baditu, eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, hutsegitea edo akatsa zuzentzeko. Zuzendu ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu horrek.

7. artikulua.- Ebazpena emateko eskumena duen organoa, emateko eta ebazteko prozedura.

1.- Eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura duen organoa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzurako Prestakuntza Zuzendaritza da, eta ebazpena emateko eskumena duen organoa erakunde autonomoaren zuzendari nagusia.

2.- Eskabideak aurkeztutako ordenari jarraiki aztertuko dira, eta laguntzak emango dira baldin eta espediente bakoitza osatuta badago, haiek finantzatzera bideratutako funtsak agortzen diren arte. Kreditua zabaltzen ez bada, diru-laguntzen aurrekontua agortutakoan EHAAn argitaratuko da zirkunstantzia hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

3.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak emango du eskabideak onartzeko, eta, hala badagokio, ukatzeko esanbidezko ebazpena. Diru-laguntza emateko Ebazpenean xedea, zenbatekoa eta ordaintzeko modua adieraziko dira.

4.- Ebazpenak ebazteko eta jakinarazteko, gehienez, sei hilabeteko epea izango da eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita, eta epe hori amaitutakoan diru-laguntzaren eskabidea onetsitzat hartuko da, baldin eta esanbidezko ebazpena ematen ez bada.

5.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta horren aurka berraztertzeko errekurtsoa jartzeko aukera izango da organo horretan, hilabeteko epean jakinarazpenaren biharamunetik, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean jakinarazpenaren biharamunetik.

6.- Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Lanbideren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, deialdi honen babesean emandako laguntzen onuradunen zerrenda, jasotako zenbatekoak adierazita, baita emandako diru-laguntza aldatu behar izan zaien pertsonen zerrenda ere.

8. artikulua.- Laguntzak ordaintzeko modua.

Laguntzak emango direla jakinarazten denean, laguntza horiek ordainketa bakar batean ordainduko dira, justifikatutako zenbatekoaren % 100, gehieneko zenbatekoa deialdi honetako 5.1 artikuluan biltzen dena izanik.

9. artikulua.- Bateragarritasuna beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin.

1.- Deialdi honetan araututako diru-laguntzak bateragarriak dira arrazoi eta xede beragatik erakunde honek edo beste administrazio edo erakunde publiko batzuek ematen dituzten bestelako laguntzekin.

2.- Deialdi honen bidez araututako diru-laguntzen zenbatekoak (laguntza bakoitzarenak edo beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emaniko bestelako diru-laguntza edo laguntzekin batera, eta xede bererako bestelako edozein diru-sarrera edo baliabide ere kontuan izanik) ezin izango du gainditu, inola ere, diruz lagundutako jardunaren zenbatekoa. Kostu hori gaindituz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da.

10. artikulua.- Onuradunen betebeharrak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan orokorrean ezartzen direnak izango dira pertsona onuradunen betebeharrak, eta bereziki honako hauek:

- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean frogatzea diru-laguntza emateko edo jasotzeko bete beharreko betebeharrak eta baldintzak betetzen dituela, baita jarduera egin izana ere.

- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiak gauzatzen dituen egiaztatze- eta kontrol-jardunen eraginpean jartzea.

- Diru-laguntza emateko kontuan izandako gorabehera objektibo edo subjektiboetan aldaketarik izanez gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari horren berri ematea.

- Xede bera duen eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik jasotako diru-laguntza edo laguntzen, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zigor-prozedura jakinaraztea.

- Jasotako diru-laguntza (osoa edo zati bat) itzultzea, baldin eta, deialdi honen betekizunetako bat ez betetzeagatik, halakorik eskatzen badiote.

11. artikulua.- Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta nolanahi ere, horrekin batera beste Administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen badira, edota, hala badagokio, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere diru-laguntzen onuradun izateko deialdi honetan ezarritako gutxieneko baldintzak gordez.

12. artikulua.- Ez-betetzeak eta diru-laguntzak itzultzea.

1.- Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude Deialdi honetan aurreikusitako laguntza jaso duten erakunde onuradunak, edo Agindu honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbideren zuzendari nagusiak Ebazpen bat emango du; horren bitartez, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko du, eta, hala badagokio, jasotako laguntza eta aplika daitezkeen legezko interesak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura itzuli behar dituela, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2.- Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira dagozkion lege-ondorioetarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan aurreikusitakoa izango da erantzukizunen erregimena.

13. artikulua.- Itzultzeko prozedura.

Aurreko artikuluan aurreikusitako ez-betetzeen kasuan, honako hau izango da jasotako laguntzak itzultzeko prozedura:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendariak prozedura hasi dela eta zergatik hasi den adieraziko dio interesdunari, eta 15 eguneko epea emango dio egokitzat jotako alegazioak aurkez ditzan.

b) Alegazioak jaso edo epe hori igaro ondoren alegaziorik aurkeztu ez bada, amaiera emango zaio prozedurari Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

Ebazpenean arauren bat bete gabe utzi dela adieraziz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, Ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean dagozkion diru-kopuruak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura itzuli beharra deklaratuko da. Epe hori borondatezko aldiko epetzat joko da.

c) Borondatezko aldian itzultzen ez bada, dagozkion izapideei hasiera emango zaie premiamendu-bidetik berreskuratzeko.

14. artikulua.- Jarraipena eta kontrola.

1.- Kontrol-jardunak onartzeko betebehar orokor honen esparruan, onuraduna bereziki behartuta dago, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskatuta, dagokion dokumentazioa aurkeztera, baita jarraipena egiteko eskatzen zaion dokumentazioa betetzera eta igortzera ere; dena dela, 10 eguneko epea izango du eskakizunei erantzuteko.

2.- Jarraipen Batzordea sortuko da; batzorde hori Elkarrizketa Sozialaren Mahaia osatzen dutenek eta Lanbideren zuzendari nagusiak edo hark izendatzen duenak eratuko dute, eta programa honen babesean egiten diren eskabideen eta ematen diren ebazpenen berri emango zaie, programa ebaluatu ahal izateko.

15. artikulua.- Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere fitxategi automatizatuetan sartuko ditu Deialdi honetan araututako laguntza-eskabideak betez lortutako datu pertsonalak.

Halaber, interesdunek Legean aurreikusitako datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, idazki bat igorriko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiari (Jose Atxotegi kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

I. ERANSKINA

INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA HIZKUNTZETARAKO EUROPAKO ERREFERENTZIA ESPARRUAREN B1, B2 ETA C1 MAILEKIKO BALIOKIDETASUNEN ZERRENDA

B1 MAILA

Ingelesa	Frantsesa	Alemana	Hirurentzat
Preliminary English Test (PET)	DELF 1er degré	Zertifikat Deutsch (ZD)	Tarteko mailaren ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituena, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak araututako ikasketa-planaren arabera.
PTE General Pearson Test of English (LEVEL 2)	Diplôme d'Etudes en Langue Française DELF B1 (CIEP)	Zertifikat Deutsch als Fremdsprache (ZDdaF)	
Trinity College ISE 1	Certificat d'Etudes de Français Pratique 2 (CEFP2)	TELC Deutsch B1 Beruf	
BEC Business English Certificate-Cambridge (PRELIMINARY Good & Exceptional)	- Certificat du Français Professionnel 2 (CFP2)		
	Certificat de Français du Secrètariat (CFS)		
	Certificat de Français du Tourisme et de l¨Hôtellerie (CFTH)		
	Certificat de Français Scientifique et Technique (CFST).		
	Diplôme de Français Professionnel B1 (DFP B1).		
	DFP Secrétariat B1		
	DFP Tourisme et Hôtellerie B1		
	DFP Scientifique et Technique B1		

B2 MAILA

Ingelesa	Frantsesa	Alemana	Hirurentzat
First Certificate in English (FCE)	DELF 2e degré.	Goethe-Zertifikat B2	Maila aurreratuaren ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituena, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak araututako ikasketa-planaren arabera.
PTE General Pearson Test of English (LEVEL 3).	Diplôme d'Etudes en Langue Française DELF B2 (CIEP).	Zertifikat Deutsch+	
Trinity College ISE 2	Diplôme de Langue Française (DL) (AF)	Zertifikat Deutsch für den Beruf	
BEC Business English Certificate-Cambridge (VANTAGE Good & Exceptional)	Diplôme de Français des Affaires 1 (DFA1)	Deutsch für den Beruf (ZDfB)	
	Certificat de Français Juridique (CFJ)	TELC Deutsch B2	
	Diplôme de Français Professionnel dans le Monde des Affaires B2 (DFP Affaires B2)	Mittelstufe Deutsch (MD)	
	DFP Juridique B2	TestDaf Niveaustufe Nivel 3	
	DFP Médical B2		
	DFP Secrétariat B2		

C1 MAILA

Ingelesa	Frantsesa	Alemana	Hirurentzat
Certificate in Advanced English (CAE)	DALF	Goethe-Zertifikat C1 (ZMP)	Maila aurreratuaren ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituena, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak araututako ikasketa-planaren arabera.
PTE General Pearson Test of English (LEVEL 4)	Diplôme Approfondi de Langue Française DALF C1 (CIEP)	Prüfung Wirtschaftsdeutsch International	
Trinity College ISE 3	Diplôme Supérieur d'Etudes Françaises Modernes (DS) (AF)	Zentrale Mittelstufenprüfung (ZMP)	
BEC Business English Certificate-Cambridge (HIGHER Good & Exceptional)	DSLCF (Diplôme Supérieur de Langue et Culture Françaises	TELC Deutsch C1	
	DFA2 (Diplôme de Français des Affaires 2)	Oberstufe Deutsch	
	DFP Affaires C1 (Diplôme de Français Professionnel dans le Monde des Affaires C1)	TestDaf Niveaustufe Nivel 4 y 5	
		Deustche Sprachprüfung für den Hochschulzugang (DSH)	

Oharra: taula horietan ingelesa, frantsesa eta alemana hizkuntzetan Europako Erreferentzia Esparruaren B1, B2 eta C1 mailetarako baliokide gisa, betiere agindu horretako 3. artikuluan zehazten denaren ondorioetarako, onartutako titulazioak biltzen dira.

II. ERANSKINA

LAGUNTZA EMATEKO ESKABIDEA.

SARRERA ERREGISTROA

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren Erabakia, gazte langabeek hizkuntza-gaitasunak lortzera bideratutako diru-laguntzen deialdia egiten duena

1.- HIZKUNTZA ETA EGIAZTATZE MAILA:

Hizkuntza: ☐ INGELESA ☐ FRANTSESA ☐ ALEMANA Egiaztatze-maila: ☐ B1 edo baliokidea ☐ B2 edo baliokidea ☐ C1 edo baliokidea

2.- ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK:

Izen-abizenak:		
NAN:	Telefono-zk.:	Jaioteguna:
Helbidea (k/, plaza, zk., solairua):		
Herria/Probintzia:		Posta-kodea:

Goian langabearen lan-egoerarekin identifikatu denak eta ……../……../……(e)ko datarekin …….. (e)ko Lanbide Bulegoan erregistratuta dagoenak, honako hau

3.- ADIERAZTEN DU ARDURAZ:

Lehenengoa:

☐ a) Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen eskutik.

☐ b) …… (e) …… €-ko laguntza eman dio.

Bigarrena:

☐ a) Ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako eta izaera berekoak diren laguntza edo diru-laguntzek eragindako itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren eraginpean.

☐ b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako eta izaera berekoak diren laguntza edo diru-laguntzek eragindako itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren baten eraginpean dago.

Hirugarrena:

☐ a) Ez du zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso, eta, era berean, ez du horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean azaltzen direnak barnean hartuta, eta ez du horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso.

☐ b) Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta dago, …….. urtez eta/edo …….. hilabetez, …… egunetik aurrera.

Laugarrena:

☐ Eskatzen duen laguntza arautzen duen arauan eskatzen diren baldintzak betetzen ditu, eta eskabide honetan azaltzen diren datuak egiazkoak dira, eta adierazten du badakiela Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazi behar diola datuen inguruan gerta litekeen aldaketa oro.

4.- ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

☐ Hirugarren Interesdunaren Datuen Altari buruzko Fitxa, eskatzaileak eta dagokion bankuak izenpetu eta zigilatuta.

☐ Ordaindu dela egiaztatzen duten fakturak eta ziurtagiriak, matrikulei eta/edo prestakuntza-ekintzan izandako partaidetzari buruzko kuotei dagozkienak.

☐ Maila egiaztatzeko azterketarako bide ematen duen matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen faktura eta ziurtagiria.

☐ Ingelesaren, frantsesaren edo alemanaren egiaztatze-mailaren ziurtagiria.

☐ Prestakuntza burutu duen zentroaren ziurtagiria, egindako ikastaroa eta ikastaroaren ordu kopurua zehaztuz.

☐ Prestakuntza-ekintzara joateagatik garraio-kontzeptuan eragindako gastuei buruzko erantzukizun-aitorpena.

5.- ESANBIDEZKO BAIMENA

ESANBIDEZKO BAIMENA NAN/AIZ

☐	BAIMENA ematen dut nire nortasun-datuak kontsultatzeko Nortasun Datuak Egiaztatzeko Sistemaren bitartez.
☐	EZ DUT BAIMENIK EMATEN eta NANaren/AIZren fotokopia kautotua aurkezten dut.

ERROLDA ZIURTAGIRIAREN ESANBIDEZKO BAIMENA

☐	BAIMENA ematen dut nire bizilekuari buruzko datuak kontsultatzeko Bizilekuari buruzko Datuak Egiaztatzeko Sistemaren bitartez.
☐	EZ DUT BAIMENIK EMATEN eta Errolda Ziurtagiriaren fotokopia kautotua aurkezten dut.

ESKATZEN DU laguntza emateko.

……., 2012ko ……aren …….(a)

Stua.: ……

DATUEN BABESA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak jakinarazten dizu eskaera hau eta erantsitako dokumentuak betez eman dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu bat lantzeko bilduko ditugula. Era berean, jakinarazten dizugu datu horiek eskaera honen xede diren laguntzak kudeatzeko bildu eta lantzen direla. Aipatutako Lege Organikoak aurreikusitakoaren arabera, eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak balia ditzakezu; horretarako, idazki bat bidali behar diozu Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiari, zerbitzu horren erregistro orokorraren bitartez (Jose Atxotegi, 1 Vitoria-Gasteiz).

III. ERANSKINA

Prestakuntza-ekintza eman duen **ZENTROAREN ZIURTAGIRIA**.

1.- Zentroaren datuak:

Zentroaren izena:		IFK:
Arduradunaren izena:	NAN:	Telefonoa:
Helbidea (k/, plaza, zk.,solairua):		
Herria/Probintzia:		Posta-kodea:

2.- Ikasle eskatzailearen identifikazio datuak:

Izen-abizenak:	
NAN	Telefono-zk.:

3.- Ikaslearen asistentzia egutegia:

Hilabetea	Hilabeteko egunak *	Hilabeteko guztizko egunak

* *Adierazi eskatzailea prestakuntza-ekintzara joan zen hilabeteko egun guztiak.*

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau sinatzen dut,

....., 201 ..... (e)ko .....aren ..... (a).

Sinadura: .....

IV. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-EKINTZARA JOATEAGATIK GARRAIO-KONTZEPTUAN ERAGINDAKO GASTUEI BURUZKO ERANTZUKIZUN-DEKLARAZIOA

LAGUNTZA ESKATZEN DUENAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK:

Izen-abizenak:	NAN/AIZ:
Helbidea (k/, plaza, zk., solairua):	Telefonoa:
Herria/Probintzia:	Posta-kodea:

DEKLARATZEN DUT, nire erantzukizunpean, ... hizkuntzan ..... maila egiaztatzeagatiko laguntzaren eskaerari dagokionez, egiazkoak direlako aitorpen honetan azaltzen diren datu guztiak eta onuraduna izateko eskatzen diren baldintzak betetzen ditudala. Adierazitako eskaera aurreikusita dago 2012ko ekainaren 27an Administrazio Kontseiluak hartutako eta 2012ko uztailaren ..... [(e)a]n EHAAn argitaratutako Erabakian.

PRESTAKUNTZA EKINTZA GAUZATU DUDAN ZENTROAREN DATUAK

Zentroaren izena:	IFK:
Helbidea (k/, plaza, zk., solairua):	Telefonoa:
Herria/Probintzia:	Posta-kodea:
Erroldatuta nagoen eta bizi naizen lekuaren eta zentroa dagoen herriaren arteko distantzia (*Dkm): ..... km	

ERROLDATUTA NAGOEN ETA BIZI NAIZEN HERRITIK EKINTZA PRESTAKUNTZA EGIN NUEN ZENTRORA EGINDAKO BIDAIEK ERAGINDAKO GARRAIO GASTUAK:

❒ Garraio Publikoan:

Datak	Egun kopurua	Egun bakoitzeko txartelaren zenbatekoa (Joan-etorria)	Guztizko zenbatekoa
__/__/____(e)tik __/__/____(e)ra			
__/__/____(e)tik __/__/____(e)ra			
__/__/____(e)tik __/__/____(e)ra			
		Guztira:	

❒ Norberaren ibilgailuan:

Datak	Egun kopurua	Distantzia (*Dkm) x 2	Modulua km bakoitzeko	**GUZTIRA**
__/__/____(e)tik __/__/____(e)ra			**0,10**	

Eta horrela jasota gera dadin nire laguntza-eskaeraren ondorioetarako, honako aitorpen hau sinatzen dut,

....., 201 ..... (e)ko .....aren ..... (a).

Sinadura: .....